



**Basaburuko Udala**  
CIF P 3104900 J  
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

## **2019KO APIRILAREN 30EAN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

Jauntsaratsen (Basaburuan), udaletxeko bilkura aretoan, 2019ko apirilaren 30ean arratsaldeko 17:30etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

**BERTARATUAK:**Xabier Azpiroz, Bakartxo Ripalda, Aitor Arangoa, M<sup>a</sup> Mar Ansorena.

Bertaratu dira baita ere Iñaki Balda (Orokieta Erbitiko kontzejuko alkatea), Eñaut Marticorena eta Sarai Etayo Igoako kontzejuko kontzejukideak.

17:30etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

### **GAI ZERRENDA**

#### **1.- Aurreko batzarreko akta onartzea.**

2019ko martxoko ohiko batzarreko akta eta apirilean egindako bi ezohiko batzarrenak, deialdiarekin batera bidali da eta bildutakoek aho batez onartzen dute.

#### **2.- Alkate ebazpenak.**

Alkateak irakurtzen ditu orain arte emandako alkate ebazpenak:

-2019/34 alkate ebazpena martxoaren 27koa Polikiroldegiko behe tentsioko ikuskapen teknikoa egiteko aurrekontua onartuz.

- 2019/35 alkate ebazpena martxoaren 27koa Orokieta plaza eraberritzearen EIOZren behin betiko likidazioa onartuz.

-2019/36 alkate ebazpena martxoaren 27koa, Orokieta-Erbitiko kontzejuari obra baimena emanaz, Erbitiko plaza eraberritu eta elizako eskaileretan baranda jartzeko.

- 2019/37 alkate ebazpena martxoaren 27koa Felix Beunzari obra baimena emanaz Ihabengo 3. Poligonoko 15. Lursaileko pareta konpontzeko.

- 2019/38 alkate ebazpena martxoaren 27koa M<sup>a</sup> Jesus Gartziandiak bere etxeko komuna berritzeko obraren tasen likidazioa onartuz.
- 2019/39 alkate ebazpena martxoaren 27koa Gregorio Iturralkdek bere etxeko leihoak aldatzeko obraren tasen likidazioa onartuz.
- 2019/40 alkate ebazpena martxoaren 27koa onartuz Mikel Alberrok Aizarotzko UE2 unitatearen urbanizazioko obrak bukatzeko jarritako abalaren itzultzea.
- 2019/42 alkate ebazpena martxoaren 27koa Jose M<sup>a</sup> Indacoecheari obra baimena emanaz Berueteko 13. Poligonoko 93. Lursailean dagoen eraikinaren teilatua berritzeko.
- 2019/43 alkate ebazpena apirilaren 3koa Onartuz 2019ko soberan dagoen epaitza Iker Fernandez Palaciosi ematea.
- 2019/44 alkate ebazpena apirilaren 3koa Beramendiko 1. Poligonoko 87. Lursailean egiten ari diren obrak gelditzea 2017/1 LFD-aren 202. Artikuluaren arabera, legezko kontrako iharduerak izanik, baimenik gabe egin direlako.
- 2019/45 alkate ebazpena apirilaren 4koa onartuz Oihanzabal Eskola Publikoko Guraso Elkarteak egindako diru laguntza eskaera, eskolan murala egiteko materiala erosteko, dirulaguntza 120 eurokoa izanik.
- 2019/46 alkate ebazpena apirilaren 4koa onartuz Beatriz Fuertes Onak egindako eskaera alde Aizaroz Herriaren izenean, herrikoetxeko kanpoko aldean dagoen informazio tabloia berritzeko eta kultur etxera sartzeko atzoko atearen giltzaren kopia bat ematea.
- 2019/47 alkate ebazpena apirilaren 5koa, onartuz, udal honek 1994eko otsailaren 8an Ihabengo 3. Poligonoko 324. Lursailean haragi behien ustaipena jartzeko ihardura eta 2005ko martxoaren 17an lursail berean dagoen simaurtegi eta txekor gunea haunditzeko irekiera baimenen titularitatea aldatzea, Pedro Munarriz Goñiren izenera pasatzeko, Ingurumena babesteko esku hartzeari buruzko Martxoaren 22ko 4/2005 foru legearen 49.4 artikuluari jarraiki.
- 2019/48 alkate ebazpena apirilaren 16koa Josu Baldari obra baimena emanaz Orokietako 8. Poligonoko 15. Lursailean dagoen eraikinaren bigarren solairua eraberritzeko.
- 2019/49 alkate ebazpena apirilaren 17koa Berueteko kontzejuari iharduera baimena emanaz ostatu jatetxerako, Berueteko 11. Poligonoko 66. Lursailean dagoen ostatu eraikinean.
- 2019/50 alkate ebazpena apirilaren 17koa baimena emanaz Wikai empresari Aizarotz, Gartzaron, Jaunsarats, Udabe eta Arraratsko deposituak erabiltzeko, interneteko seinalea emateko tresneria jartzeko.
- 2019/51 alkate ebazpena apirilaren 17koa, onartuz Bea Fuertesi kultur etxeko gela haundiaren atearen giltzaren kopia ematea, eskatzailearen ardura izanik kopia honen kudeaketa eta erabilera.

- 2019/52 alkate ebazpena apirilaren 24koa onartuz Oihanzabal Guraso Elkarteak egindako eskaera eta baimena ematea Olhanzabal eskolan postontzi bat jartzeko.

-2019/53 alkate ebazpena apirilaren 24koa Onartuz Basaburuko Ttikiena haur eskolarako 2019-2020 ikasturterako behin behineko onartutakoen zerrenda.

- 2019/54 alkate ebazpena apirilaren 24koa Eurovelo ibilbidearen egokitzapen proiektua egikaritzeko obra baimena emanaz

Bildutakoak ontzat ematen dituzte egindako ebazpenak.

### **3.- Orokietari-Erbiti, Udabe-Beramendi eta Igoan fibra optikoaren azpiegitura. Obra esleitzeko baldintza plegua.**

Alkateak azaltzen du, obrarako Cederna Garalurrek onartu duela dirulaguntza, 50.000 eurokoa eta hortaz obra egikaritzen hasi ahal du udalak. Kontzejuekin aurreko proiektuan bezala, bere herriko azpiegituraren gastuaren %20a jartzea finkatu da. Obraren esleipenerako baldintza plegua prestatu da, bildutakoek aztertzen dute eta balorazio finkatu, Balorazio ekonomikoa 50 puntu izatea adosten dute, berme epearen luzapena 20 puntukoa eta obraren deskribapena eta laneko plana 20 puntu. Gainera sartuko dira irizpide sozial bezala berdintasunerako formakuntza eta abar...

Plegua aztertu eta aldaketak sartu ondoren bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

**-Onartzea Orokietari-Erbiti, Udabe-Beramendi eta Igoan fibra optikoaren azpiegitura egiteko obra esleitzeko baldintza plegua.**

**-Onartzea prozedura simplifikatu bidez eginen denez aurreko obrarako gonbidatu ziren enpresak gonbidatzea ea hauei gehitu Iruñerriko instalazio enpresa batzuk gehiago.**

**-Onartzea proposamenak aurkezteko epea 10 egunekoa izatea eta PLENA plataforma bidez dokumentazioa aurkeztu behar denez aurkezteko azkeneko eguna maiatzaren 22 izatea. Proposamenen irekiera 24an eginen da eta 28an irekiera ekonomikoa. Maiatzaren 31eko batzarrean onartuko da obraren esleipena.**

### **4.- Maiatzaren 26ko Hauteskundeak. Mahaiaren zozketa.**

Maiatzaren 26ko hauteskundeetarako mahaikideen zozketa hauteskundeen onespeneraren arabera apirilaren 27tik maiatzaren 1era egin behar da.

Hortaz bildutakoak zozketaren aplikazioa erabiliz ondoren zehazten direnak izendatzen dituzte mahaikide bezala:

Lehendakaria Miren Farea Ochotorena

1. mahaikidea Mikel Elizalde Elizetxe

2. Mahaikidea Manuel Arraras Bildarraz

Lehendakariaren 1. ordezkoa Marta Huarte Esteban

Lehendakariaren 2. Ordezkoa Beñat Dorai Urritza

1. Mahaikidearen 1. Ordezkoa M<sup>a</sup> Elena Ganuza Gracia

1. Mahaikidearen 2. Ordezkoa Miguel Angel Loinaz Sala

2. Mahaikidearen 1. Ordezkoa Leire Cabrero Cosgaya

2. Mahaikidearen 2. ordezkoa Angel Luis Alvarez Bermejo.

Legeak agintzen duen 3 eguneko epean jakinaraziko zai izendapena hautatuei.

## **5.-Mozioak.**

Alkateak Undianoko kontzejuak bidalitako mozio bat dagoela adierazten du, goi tentsioko linearen inguruan eta ondoren transkribatzen dena irakurtzen da:

### **“ DECLARACIÓN DE CARGOS ELECTOS Sobre el Nuevo proyecto de Línea de Alta Tensión**

A los cargos electos locales de Ayuntamientos y Concejos que suscribimos esta declaración nos une la legitimidad que nos otorga haber sido elegidos en nuestros pueblos, nuestro compromiso con su futuro y el derecho a vivir dignamente en ellos. También nos une nuestra oposición a los sucesivos proyectos de línea de alta tensión entre la Comunidad Foral Navarra y la Autónoma Vasca, impulsados por una empresa privada que bajo el manto de un interés general nunca demostrado condena al ostracismo a las zonas afectadas.

Ya hace una década que nos enfrentamos al primer proyecto Vitoria-Gasteiz/Castejón-Muruarte hasta paralizarlo, según el propio BOE de 12 de noviembre de 2010 “por su afección al medio ambiente y la oposición social”. Poco después en 2011 llegó el segundo proyecto Itsaso/Dicastillo, aprobándose mociones que pedían su retirada en 250 Ayuntamientos y Concejos, a la vez que se presentaban 15.000 alegaciones que nunca recibieron respuesta.

Que la oposición popular, encabezada por sus entidades locales, consiguiese la retirada de ambos proyectos, no ha sido impedimento para que Red Eléctrica de España S.A. presente ahora un tercero, cuyo ámbito de actuación coincide básicamente con el anterior. ¿Qué más debemos hacer para que se respete la voluntad popular mayoritaria? Seguir adelante con este proyecto supone una burla a la legítima representación democrática de la ciudadanía.

En estos momentos cruciales para el devenir del proyecto queremos dejar claro que el debate no es sobre las alternativas de trazado, o quiénes deben soportar los efectos de este despropósito, sino la ausencia de justificación del mismo. Desde la convicción de que este proyecto no es necesario, apostamos por optimizar las infraestructuras de

transporte eléctrico ya existentes y el cumplimiento de los planes de mejora del abastecimiento dimensionados a nuestras verdaderas necesidades.

Tras nuestro rico patrimonio ambiental y cultural, tras la bucólica pantalla de nuestro paisaje se esconden enormes desequilibrios territoriales, precarios servicios sociales e innumerables agravios comparativos. Nuestros valles, nuestros montes, no pueden convertirse en un mero soporte físico para la implantación de infraestructuras que conlleven un impacto inasumible sobre el medio natural, la salud o el tejido productivo, además de ser incompatibles con los planes de desarrollo futuro que están previstos para nuestros pueblos y comarcas.

Por todo ello solicitamos de las instituciones competentes, la retirada inmediata y definitiva del proyecto de línea de alta tensión entre Itsaso y Castejón-Muruarte, porque de esta manera se respetaría la voluntad popular mayoritaria y se evitaría un daño irreparable en zonas de gran valor patrimonial, natural y cultural para toda la colectividad. Del mismo modo, instamos a los gobiernos foral y autonómico a ponerse del lado de Ayuntamientos y Concejos, frente a los intereses de las multinacionales eléctricas.

Por último, manifestar nuestra apuesta por un desarrollo democrático del ecosistema, que basándose en las necesidades reales de la población y el derecho a decidir sobre nuestro futuro, respete el medio rural y posibilite la armonía y el equilibrio de las actividades económicas con la salud pública y el entorno natural. “

Bildutakoek aho batez onartzen dute adierazpen instituzionala eta euskaraz bidaltzea eskatuko da, bakoitzak bere sinadura eman ahal izateko, hautetsi bezala.

## **6.- Batzordeen informazioa.**

### **-Kirol Batzordea. Bakartxo Ripaldak ematen du informazioa.**

Apirilaren 20an Gartzaronen burutu zen Duathloia. 110 pertsonak parte hartu zuten. Maitzaren 1ean mendi irteera eginen da basaburuan zehar, Igoatik Igoara. Maiatzaren 4an segelarien erakustaldia eginen da Udabe eta maiatzaren 19an BTT.

**-Gizarte Zerbitzuetako Batzordea. M<sup>a</sup> Marrek ematen du informazioa.** Osasun planaren barruan maiatzaren 19an eginen da 1. tailerra, BTT egunaren baitan eta sorospen tailerra izanen da. Mankomunitateko bilera burutu zen eta bertan langileen egoera aztertu zen, lan kargagatik langile gehiago kontratatzeke aukerak aztertuz. Berdintasun teknikariak lana utzi du eta zailtasunak daude plaza betetzeko profila berezia delako (gizarte langilea, berdintasun arloan formakuntza duena eta euskaran C1 mailarekin).

### **-Ogasun Batzordea. Bakartxo Ripaldak ematen du informazioa**

Hilabeteko gastuak ordaintzea erabaki zen. 2018ko zordunak Geserlokalera bidaltzea eta 2019ko zirkulazio zerga zor dutenei gogoratuko zaie gutun bidez ordaintzeko dutela, Geserlokalera bidali baino lehen.

## **7.- Informazio orokorra.**

Ez dago.

## **8.-Errege-galderak**

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 19:00ak direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.